

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

LEHENDAKARITZA

6339

46/2021 DEKRETUA, abenduaren 3koa, lehendakariarena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko idazkari nagusia izendatzeko dena.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 17. artikulua ezarritakoaren arabera, lehendakariaren eskumena da Idazkaritza Nagusiko pertsona titularra izendatzea eta kargutik kentzea, presidentek proposatuta eta batzordekideei entzun ondoren. Karguaren iraupena lau urteko izango dela ere ezartzen du artikulua horrek.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Legearen 17. 1 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta batzorde horretako presidentek horrela proposatuta, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Olatz Jaureguizar Ugarte andrea izendatzea Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko idazkari nagusi.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko abenduaren 3an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.